

BENETAKO ZORIONA EZ DA DIRURIK KOSTATZEN



2017/2018

HAUR
HEZKUNTZA

BALIATU ZEURE AISIALDIA BENETAN AXOLA DUENERAKO
Zeuk irabaziko duzu, planetak irabaziko du, denok irabaziko dugu



Unitate Didaktikoa

UTZI ZEURE AZTARNA... PLANETAN ETA ZEURE BAITAN

SARRERA

Oinarritzat hartu ditugu ERRESPETUA, ELKARTASUNA, BIZIKIDETZA, KONTSUMO ARDURATSUA (elikagaiak) eta NATURAREKIKO HARREMANA geure ikastetxean landuko dugun unitate didaktiko hau antolatzeko. Kontuan eduki behar da sozializazio sekundarioko lehen urratsak ematen ari garela, alegia, Haur Hezkuntzako 1. eta 2. zikloetan gaude; horregatik, jarduerak eurek egin eta uler dezaketenera egokituak egon behar dute.

HELBURU OROKORRA

Ikasleak animatzea modu osasungarrian eta ingurumenarekin egokiturik bi bizi daitezten, ingurumen hori zaintzeko bakoitzak bere ekarpena egiten duelarik.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Ikasleak gai izan daitezela jolastokian edo sortzen diren zaborrak identifikatu eta bakoitza dagokion edukiontzira eramateko. Azken batean, kontzientziatu daitezela ingurumena zaintzeak daukan garrantziaz.
- Elikapenaren ohitura osasungarria sustatzea.
- Ikaslearengan txertatzea naturarekiko errespetua, harreman hori begirunezko eta arduratsua izan dadin, bai abereekin eta bai landareekin.

EDUKIAK

- Gogoeta, sortzen dugun zaborrak munduan duen eraginaren gainean.
- Txikitatik ikastea modu osasungarrian elikatzen.
- Naturaz gozatzea, inguratzen gaituzten izakien bizitokia dela ulertuz.

DENBORA BANAKETA

Jarduerak hiruhileko bakoitzerako pentsatuak daude. Bakoitzean bi.

1. HIRUHILEKOA

- **GARBIKETA TALDEA.** [Jarduera hau hiruhileko guztietara eramango da, behin ikasleek jarduera bereganatu dutenean, hau da, ikasturte guztian zehar mantenduko da].

Jolas ordu bakoitzean sortuko da "garbiketa taldea" jolastoki guztia garbi egon dadin laguntzeko eta kide guztiak sentsibilizatzeko. Arreta berezia eskainiko zaio jolastokiari arratsaldean, meriendatu ondoren lurrean paperik edo beste hondakinik gera ez dadin. Jolastokia zaintzeko arduradunak (andereñoak) euren artean ados jarriko dira egunero talde berri bat izan dadin garbitzearen, lurrera ezer ez botatzearen eta komuneko papera behar bezala erabiltzearen garrantziaz gainerakoak ohartaraziko dituen [ingurumen kontzientzia – Youtube. Nola egiten den papera <https://youtu.be/bzlmpPGLwwU>]

• BARATZERA

Prestaketa, aurretiaz motibatu ondoren: ikasleek etxetik saskitxo bana ekarriko dute, hostoak biltzeko, egun horretan baratzezainak apropos bildu gabe utziak izango dituenak, ikasleek beren saskitxoetan jaso ditzaten. Udazkeneko hostoak: kolore hori, laranja, marroi, etb. ekoak. Jarduera honek aukera emango digu, bide batez, kolore ñabardurak ere lantzeko.

Ingurumen kontzientzia landuko dugu besteekiko adiskidantza eta enpatia, kasu honetan, baratzezainarekin aintzat hartuz gauzatzen duen lana: txukuntasuna, ordena, naturaren eta landareen aldeko arreta eta begirunea. Ikaskideekiko errespetua ere bai, ikastetxeko baratzea ikustera joango baitira, ordenan eta binaka [lankidetzako ikasketak].

Ipuina: Kepa eta bere haritza. Bruño Argitaletxea.

Abestia: Zuhaitzaren hostoak. <https://youtu.be/hAVjeD12MTk>

2. HIRUHILEKOA

• MERIENDA ARDURATSUA

Jarduera honetako edukiek gaixotasunen prebentzioarekin eta osasun onarekin loturiko gaiak buruz dihardute. Jarduera garatu ahala, ikasleek hainbat gauza interesgarri ikasiko dituzte: modu osasungarrian jaten, beren higiene pertsonalaz arduratzen, ariketa fisikoa egiteak edota gaixotasunak saihesteko txertoak hartzeak daukaten garrantziaz, informazio bide desberdinak baliatuz: liburuak, bideoak... Gero tailer batzuk gauzatuko ditugu zenbait materialekin, elikapen piramidean zertan datzan jabetu daitezela, eta elikagai desberdinak sailkatzen ikasiko dugu. Azkenik, lagunarteko meriendatxo bat antolatuko dugu [fruta].

- **UNIFORMEA/TXANDALA GARBI ETA TXUKUN.** [Jarduera hau hiruhileko guztietara eramango da, behin ikasleak jardueraz jabetu direnean, hau da, ikasturte guztian zehar mantenduko da]. "Mimoak izatea" jokoa egingo da. Balizko beira baten bidez, umeei mugimendu desberdinak egingo dituzte, mimoak balira bezala. Gainera, ikasgelako ispilura hurbilduko dira, goizero zeinen txukun eta apain iristen diren ikustera; eta arratsaldean ere gauza bera egingo dute orain beren uniformeak nola dagoen ikustera. Egoera onargarrian ez dagoela ikusten bada motibazioaren bat proposatuko da: karamelu banda bat edo mota horretako sariren bat, uniformeak egoera onenean daukanarentzat.

3. HIRUHILEKOA

• SUKALDEAREN EGUNA

- Maila desberdinak landuko dira: elikagai piramidean, zapoaren bereizketa eta elikagai osasungarrien eta ez osasungarrien arteko bereizketa.
- Sukaldari egun bat egingo da ikasgelan. Horretarako, behar diren elikagaiez gain, arropa egokiak ere ekarri beharko dira: amantala, kapela, eskuzorroa, zerbitzari jakatxoa...
- Elikagairik ez botatzeko helburua landuko da, zer janik ez daukatenean aldeko kontzientzia hartuz.
- Meriendetan ohikoak diren litxarreriak "txutxeak" kontsumitzearen aurkako kontzientzia har dezaten ahaleginduko gara.

Ratatouille animazio filma. <https://youtu.be/t-e3G8SVj4Y>

• IKUSTALDI BAT BASERRI ESKOLARA

Ikasleak motibatuzko urtaro berriak baliatuko ditugu: udaberria eta uda, abesti eta olerki berriak ikasiz. [Esate baterako: Hiru txito izan eta lau galdu, gure txitoaren ama nork jan du. Purra-purra egin nion atetik, kukurruku egin zidan eltzetik... <https://youtu.be/yMW3psDUE3Y>. animalia bakoitzaren onomatopeiak egiteko].

- Naturarekiko harremana eta beronen ardura bultzatuko dira.
 - Baserri eskolan ikusiko dituzten animaliak aurkeztu eta kategoria desberdinen arabera sailkatuko dira: ilea, luma, hankak, mokoak... [zenbat hanka?]
 - Baserri eskolako animaliek parte hartzen duteneko ipuinak dramatizatuko dira taldeka.
- Bremeneko musikariak https://youtu.be/dZgm_muuMfQ
- Zeren gustua dauka ilargiak? <https://youtu.be/Ln6d3GSFlgo>, etab.